

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 76/2019 FORU DEKRETUA,
ekainaren 18koa, desgaitasuna duten pertsonen zentroetan
Arreta Jasotzeko Beharrianaren Gizarte-adierazlea (AJBG)
onesten duena.**

(2020ko ekainaren 1eko BAO)

ZIOEN AZALPENA

Desgaitasuna duten pertsonen zentroetan Arreta Jasotzeko Beharrianaren Gizarte-adierazleak (AJBG, aurrerantzean) desgaitasuna duten pertsonentzako zentro espezifikotako plazak lortzeko lehentasun-irizpideak zehaztu eta ebaluatzen ditu, modu egokian aztertutik pertsona horiek dituzten beharrian sozialaren arloko alderdiak eta haien egoera sozio-familiarra eta ingurunea.

Tresna horrek ebaluatu nahi du desgaitasuna duten eta zentro espezifikotako (egoitza-zentroak eta eguneko arreta-zentroak) plaza bat eskatu duten pertsonen egoera sozio-familiarra eta ingurunea, beharrianak baztertzeko laguntzeko eta plaza lortzeko lehentasun-hurrenkera bat ezarri ahal izateko.

AJBG prestatzeko, kontuan hartzen da pertsonen zentzuzko dimentsioekin duten harremanek zehazten dutela gizarte-beharrianaren egoera. Hona dimentsiook:

1. Pertsona integratutik dagoen bizikidetzaren unitatea eta zaintzaile nagusien egoera.
2. Eskatzailearen hurbileneko ingurunea: etxebizitza, hurbileko ingurune soziala eta erabilgarri dituen gizarte-zerbitzuak/laguntzen hornitze formala).

AJBG, beraz, dimentsio horietan egituratzen da, eta puntuatu daitezkeen zenbait faktore ditu, zeinei puntuazio zehatz bat ematen zaion.

Orain arte, otsailaren 23ko 2394/2012 Foru Aginduak arautu du tresna hau. Onetsi zenetik igarotako denborak, azken urteetan gertatutako aldaketa sozialek eta aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzeak beharrezko bihurtu dute foru-dekretu hau onestea.

Hori dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17. eta 64 artikuluetan emandako ahalmenak erabiliz, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2019ko ekainaren 18(e)ko bilkuran eztabai-datu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.

Onestea desgaitasuna duten pertsonen zentroetan arreta jasotzeko beharrianaren gizarte-adierazlea. 1. Eranskinean jasotzen da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Ahalmena ematen zaio Gizarte Ekintzako foru-diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi, interpretatu eta aplikatzeko beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

XEDAPEN INDARGABETZAILEA BAKARRA

Berariaz indargabetzen da otsailaren 22ko 2394/2012 Foru Agindua, desgaitasuna duten pertsonentzako zentroetan arreta jasotzeko beharrianaren gizarte adierazlea onesten duena.

AZKEN XEDAPENA.

Foru-dekretu hau argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA 1

DIMENTSIONA: BIZIKIDETZA-UNITATEA ETAINTZAILE NAGUSIAK

Puntuatu daitezkeen faktoreak		Puntuazioa
1. Desgaitasuna duen pertsonaren bizikidetza-gunearen ezaugarriak		
1.1. <i>Norekin bizi da desgaitasuna duen pertsona? (aukeratu bat)</i>		
a) Zuzeneko senideekin, modu egonkorrean; edo bikotearekin —e) letrako kasuan izan ezik—.		1
b) 2. edo 3. graduko senideekin eta/edo ahaidetasunedo legezko harrera-loturarik gabeko pertsonekin —e) letrako kasuan izan ezik—.		2
c) Senide batzuekin, txandaka.		3
d) Bakarrik.		4
e) Desgaitasuna duen beste pertsona batekin (bikotekidea izan edo ez), bata bestearen zaintzailea ez denean.		3
1.2. <i>Bizikidetza-unitatearen inguruabarrak, elkarbizitzan eragina dutenak (aukeratu behar dena edo direnak)</i>		
	Atal honetarako gehieneko puntuazioa	10
	%33tik %44ra bitarteko desgaitasuna: puntuazioa pertsonako	1
	%45tik %64ra bitarteko desgaitasuna eta/edo I. graduko mendekotasuna: puntuazioa pertsonako	1,5
a) Bizikidetza-gunearan badira desgaitasuna duten edo mendekotasunegoeran dauden beste pertsona batzuk, laguntza behar dutenak.	%65tik %74ra bitarteko desgaitasuna eta/edo II. graduko mendekotasuna: puntuazioa pertsonako	2
	% 75eko edo hortki gorako desgaitasuna eta/ edo III. graduko mendekotasuna: puntuazioa pertsonako	3

Puntuatu daitezkeen faktoreak		Puntuazioa
b) Bizikidetzta-unitatearen ardurapeko adingabeak.	Atal honetarako gehieneko puntuazioa	6
	Puntuazioa ardurapeko adingabe bakoitzeko	0,5
c) Zaintzaile nagusi diharduen pertsona ez beste bat/batzuk daude bizikidetzta-gunean, muga edo mendekotasun funtzional eta/edo sozial bat dutenak	Atal honetarako gehieneko puntuazioa	2
	Puntuazioa egoera horretan dagoen pertsonako	0,5
d) Umezurztasuna edo antzeko beste familia-egoera batzuk (halakorik badago, aukeratu dagokiona).		
1) Erabateko umezurztasuna		15
2) Umezurztasun partziala		10
3) Guraso bakarreko familia		10
4) Gurasoak bananduta daude.		5
5) Gurasoak bananduta edo antzeko beste egoera batean daude, haietako batek ez ditu betetzen desgaitasuna duen eskatzailearekiko betebeharrak.		8
6) Desgaitasuna duen pertsona bananduta dago bere bikotekidearengandik.		5
7) Desgaitasuna duen pertsona bananduta dago, eta bikotekide-ohiak ez ditu betetzen desgaitasuna duen pertsonarekiko betebeharrak.		8
Puntuatu daitezkeen faktoreak		Puntuazioa
2. Bizikidetzta-unitatea eta hurbileko ingurunea: harremanak eta dinamika		
2.1. <i>Bizikidetzta-unitateko pertsonak zer inplikazio eta ardura dituzten desgaitasuna duen pertsonari laguntzeko orduan (aukeratu bat)</i>		
a) Bizikidetzta-unitateko pertsonak ez dute inolako inplikaziorik desgaitasuna duen pertsonari laguntzeko orduan.		8
b) Bizikidetzta-unitateko pertsonak euren artean banaturik dute desgaitasuna duen pertsonari laguntzeko ardura.		2
c) Bizikidetzta-unitateko pertsona bakarra arduratzen da desgaitasuna duen pertsonari laguntzeaz; baina hala adostu dute guztiek, eta egoera horrek ez du gatazkarik edo zailtasunik eragiten bizikidetzta-unitatean.		4
d) Desgaitasuna duen pertsonari laguntzeko arduraren eta lanaren banatze desorekatuak gatazkak edo zailtasunak eragiten ditu bizikidetzta-unitatean.		6
2.2. <i>Bizikidetzta-unitatearekin edo hurbileko ingurunearekin bizitzeko dauden zailtasunak (aukeratu bat)</i>		
a) Ez dago zailtasunik		0
b) Zailtasun arina		5
c) Zailtasun moderatua		10
d) Zailtasun larria		20
e) Erabateko ezintasuna		30
2.3. <i>Bizikidetzta-unitate eta zaintzaile nagusiarekiko harremanak eta dinamika (aukeratu kasuankasuan gertatzen dena edo direnak)</i>		
a) Irizpide-desberdintasunak daude bizikidetzta-unitatean eta/edo zaintzaile nagusiarekin, desgaitasuna duen pertsonarekiko harremanetan eragina dutenak.		2

Puntuatu daitezkeen faktoreak		Puntuazioa
b) Bizikidetzta-unitateak eta/edo zaintzaile nagusiak ez dio/diote arreta egokirik ematen desgaitasuna duen pertsonari.		5
c) Bizikidetzta-unitateak eta/edo zaintzaile nagusiak ez dio/diote tratu egokirik ematen desgaitasuna duen pertsonari.		8
3. Babesgabetasun-, abandonueta esplotazio-egoera edo tratu txarrak (aukeratu kasuan-kasuan gertatzen dena)	Atal honetarako gehieneko puntuazioa	100
1) Desgaitasuna duen pertsonaren auto-abandonua.		30
2) Legez ezarritako senideek desgaitasuna duen pertsona abandonatzea edo ez betetzea elikatze-betebeharrak		40
3) Desgaitasuna duen pertsonaren esplotazio ekonomikoa edo eskean jartzea.		45
4) Desgaitasuna duen pertsonaren duintasunaren eta eskubideen kontrako edozein egoera laidogarri.		50
5) Bizikidetzta-unitateko pertsonak desgaitasuna duen pertsona bortxatzea, edo hari sexu-abusuak egitea.		55
Inguruabar horietako baten edo batzuen ondorioz, desgaitasuna duen pertsona bizitzarako arrisku-egoera argian dago		10
4. Zaintzaile nagusiaren beharra eta presentzia (aukeratu bat)		
a) Desgaitasuna duen pertsonak ez du zaintzaile nagusi baten beharrik.		0
b) Desgaitasuna duen pertsonak zaintzaile nagusi bat behar du, baina baztertu egiten du halako laguntza.		20
c) Desgaitasuna duen pertsonak zaintzaile nagusi bat behar du, baina ez du laguntza-zerbitzu hori ematen dion pertsonarik.		35
5. Zaintzaile nagusien ezaugarriak, egoera eta gaitasuna		
5.1. <i>Elkarbizitza (aukeratu bat)</i>		
a) Zaintzaile nagusia desgaitasuna duen pertsonarekin bizi da.		5
b) Zaintzaile nagusia ez da bizi desgaitasuna duen pertsonarekin.		0
5.2. <i>Lan/okupazio egoera (aukeratu bat)</i>		
a) Zaintzaile nagusiak zailtasunak ditu lana eta desgaitasuna duen pertsonari ematen dion arreta uztartzeko.		2
b) Zaintzaile nagusiak lanaldi-murrizketa eskatu du, desgaitasuna duen pertsonari arreta eman ahal izateko.		3
c) Zaintzaile nagusia eszedentzian dago, desgaitasuna duen pertsonari arreta emateko.		4
d) Zaintzaile nagusiak lanari utzi dio, desgaitasuna duen pertsonari arreta emateko.		5
5.3. <i>Zaintzaile nagusiaren ahaidetasuna (aukeratu bat)</i>		
a) Lehen mailako odolkidetasun-senideak, eta ezkontidea.		2
a) Bigarren mailako odolkidetasun-senideak.		4
b) Beste senide batzuk, odol-ahaidetasunik edo senidetanunik gabeak.		5
5.4. <i>Zaintzaile nagusiaren desgaitasuna/mendekotasuna (aukeratu bat)</i>		
a) Ez du desgaitasunik, ez eta mendekotasunik ere.		0
b) % 33tik % 44ra bitarteko desgaitasuna.		5
c) % 45tik % 64ra bitarteko desgaitasuna eta/edo I. graduko mendekotasuna.		8
d) % 65tik % 74ra bitarteko desgaitasuna eta/edo II. graduko mendekotasuna.		12

Puntuatu daitezkeen faktoreak		Puntuazioa
e) % 75eko edo hortik gorako desgaitasuna eta/edo III. graduako mendekotasuna.		15
5.5. Zaintzaile nagusiaren adina (aukeratu bat)		
a) 35 urte, gehienez.		3
b) 36-55 urte bitartekoa.		1
c) 56-66 urte bitartekoa.		3
d) 67-75 urte bitartekoa.		4
e) 76-85 urte bitartekoa.		5
f) 85 urtetik gorakoa.		6
5.6. Zaintzaile nagusiaren osasun-egoera (aukeratu bat)		
a) Ez du osasun-arazorik.		0
b) Zaintza-lanengatik okerrera egiten duten osasun-arazoak.		3
c) Gaixotasun larria edo ezgaitzen duen gaixotasuna, desgaitasuna duen pertsonari arreta eta zaintza-lanak emateko oztopo dena.		5
5.7. Guberman eskalan lortutako puntuazioa		
a) 0-10 puntu bitartean.		0
b) 11-20 puntu bitartean.		5
c) 21-30 puntu bitartean.		10
5.8. Zaintzaileen gaitasuna		
a) Sendotasuna.		0
b) Hauskortasuna.		5
c) Etsitzeko arriskua.		10
Puntuatu daitezkeen faktoreak		Puntuazioa
6. Zaintzaile nagusiek ematen duten laguntzaren iraupena eta maiztasuna		
6.1. Elkarbizitza-denbora		
a) Elkarrekin bizitzen emandako urteak	Atal honetarako gehieneko puntuazioa	2
	Puntuazio urte bakoitzeko	0,25
6.2. Zaintzaileak zenbat denbora ematen duen zaintza-lanetan		
a) 1-2 ordu		1
b) 2-4 ordu		3
c) 4-8 ordu		6
d) Erabateko arduraldia		10
7. Desgaitasuna duenarekin bizi ez diren senideak, harentzat garrantzi handikoak, eta haren laguntza sozialeko sareko beste pertsona garrantzitsu batzuk		
7.1. Desgaitasuna duen pertsonak badu berarekin bizi ez diren beste senide batzuen laguntza (aukeratu bat)		
a) Baditu berarentzat garrantzitsuak diren beste pertsona batzuk, bere laguntza sozialeko sarean, zeinekin harremanak baititu eta/edo zeinek laguntza egokia edo nahikoa eskaintzen baitiote zaintzaile nagusiek ematen dioten arreta osatzeko.		0

Puntuatu daitezkeen faktoreak	Puntuazioa
b) Baditu berarentzat garrantzitsuak diren beste pertsona batzuk, bere laguntza sozialeko sarean; baina pertsona horiek eskaintzen dioten laguntza desegokia eta eskasa da zaintzaile nagusiek ematen dioten arreta osatzeko.	3
c) Ez dauka harremanik bere laguntza sozialeko sareko beste pertsona garrantzitsu batzuekin eta/edo ez dauka halako pertsonen laguntzarik.	6
7.2. Desgaitasuna duen pertsonak badu berarentzat garrantzitsuak diren beste pertsona batzuen laguntza, bere laguntza sozialeko sarean (aukeratu bat)	
a) Baditu berarentzat garrantzitsuak diren beste pertsona batzuk, bere laguntza sozialeko sarean, zeinekin harremanak baititu eta/edo zeinek laguntza egokia edo nahikoa eskaintzen baitiote zaintzaile nagusiek ematen dioten arreta osatzeko.	0
b) Baditu berarentzat garrantzitsuak diren beste pertsona batzuk, bere laguntza sozialeko sarean; baina pertsona horiek eskaintzen dioten laguntza desegokia eta eskasa da zaintzaile nagusiek ematen dioten arreta osatzeko.	3
c) Ez dauka harremanik bere laguntza sozialeko sareko beste pertsona garrantzitsu batzuekin eta/edo ez dauka halako pertsonen laguntzarik.	6
8. Bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoaren arrisku-maila (aukeratu bat)	
a) Desgaitasuna duen pertsonaren bizikidetzaren unitateak baliabide ekonomiko nahikoak dauka.	0
b) Desgaitasuna duen pertsonaren bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoa eskasa da.	5
c) Desgaitasuna duen pertsonari ematen zaion arretak arrisku larrian jartzen du bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoaren iraunkortasuna.	10

INGURUNEAREN DIMENTSIOA. HURBILEKO INGURUNEAREN DIMENTSIOA

Puntuatu daitezkeen faktoreak	Puntuazioa
1. Bizigarritasun eta irisgarritasun-baldintza egokiak dituen etxebizitza-baliabidea izatea (aukeratu bat)	
a) Etxebizitzak dotazio guztiak eta oinarrizko ekipamendua dauka; bizigarritasunaren arloko baldintza guztiak betetzen ditu, eta ez dauka oztopo arkitektonikorik.	0
b) Bizigarritasunaren arloko baldintzak nahikoak dira; baina oztopo arkitektonikoak daude eta/edo ekipamendua falta da.	3
Puntuatu daitezkeen faktoreak	
	Puntuazioa
c) Bizigarritasun-baldintzetan gabezia handiak daude, gainditu ezin direnak; ekipamendua oinarrizkoa da eta/edo oztopo arkitektonikoak daude.	5
d) Bizigarritasun-baldintzek, ekipamenduak edo oztopo arkitektonikoek osasuna arriskuan jar dezakete.	8
e) Etxebizitza ez dago bizigarritasun-baldintzetan, edo ez dago etxebizitzarik.	10
2. Ingurunearen baldintzak	
2.1. Ingurunearen irisgarritasun unibertsaleko baldintzak (aukeratu bat)	
a) Etxebizitzaren kanpoaldean ez dago eskatzailearen mugikortasuna, komunikazioa edo ulermena mugatzen duen oztoporik.	0
b) Etxebizitzaren kanpoaldean badaude eskatzailearen mugikortasuna, komunikazioa edo ulermena mugatzen duten oztopoak.	3
2.2. Komunitateko baliabideetarako sarbidea (aukeratu bat)	
a) Etxebizitza kokaleku onean dago; komunikabideetarako eta zerbitzuetarako sarbidea	0

Puntuatu daitezkeen faktoreak	Puntuazioa
dauka.	
b) Etxebizitza hirigunean edo herrigunean dago; baina mugak daude zerbitzu komunitarioetarako sarbidean.	3
c) Etxebizitza leku isolatu batean dago, non ez baitago komunikabiderik eta muga handiak baitaude zerbitzu komunitarioetarako sarbidean.	7
3. Pertsonaren parte-hartze soziala	
a) Desgaitasuna duen pertsonaren harreman sozialak trinkoak dira, eta modu aktiboan parte hartzen du komunitatean.	0
b) Desgaitasuna duen pertsonaren harreman sozialak eskasak dira, eta gutxitan parte hartzen du komunitateko jardueretan eta baliabideetan.	3
c) Desgaitasuna duen pertsona isolaturik bizi da; ez dauka harreman sozialik, eta ez du bizitza sozialean parte hartzen.	7
4. Erabilgarri dituen laguntza formalen sistema	
4.1. <i>Desgaitasuna duen pertsonak erabiltzen dituen zerbitzuak (aukeratu dagokiona edo dagozkionak)</i>	
a) Ez du arretarik jasotzen beste gizarte-zerbitzu batean.	10
b) Etxeko laguntza-zerbitzua edo antzekoa jasotzen du.	
a. Publikoa	2
b. Pribatua	4
c) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa jasotzen du.	2
d) Familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzen du, bai eta zaintzaile ez-profesionalentzako laguntza ere.	2
e) Zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa jasotzen du.	1
f) Arreta ematen diote eguneko laguntza-zentro edo -zerbitzu batean (jarduera-zentroa, eguneko zentroa, eguneko ospitalea, okupazio-zentroa), egun osoz.	1
g) Arreta ematen diote eguneko laguntza-zentro edo -zerbitzu batean (jarduera-zentroa, eguneko zentroa, eguneko ospitalea, okupazio-zentroa), egun erdiz.	2
h) Arreta ematen diote gizartean baztertuta dauden edo hala egoteko arriskuan dauden pertsonentzako baliabide batean.	1
i) Arreta ematen diote egoitza-baliabide pribatu batean (egoitza edo tutoretzapeko etxebizitza).	2
j) Arreta ematen diote osasun-baliabide batean (psikiatrikoa) eta/edo egoitza-unitate soziosanitario batean.	0
4.2. <i>Laguntzen horniduraren egokitasuna (aukeratu inguruabar hori gertatzen bada)</i>	
a) Pertsona dagoen baliabidea ez da egokia, haren beharrianak kontuan harturik.	8